



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

«Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio-titulu komunak araupetzen dituen Ordenantza»-ren aldatzeko hasierako onespeneren iragarkia.

«Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio-titulu komunak araupe-tzen dituen Ordenantza»-ren aldatzeko hasierako onespenera, 2024ko martxoaren 22ko 59. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaur-rean egon da hogeita hamar (30) eguneko epean eta epe horretan ez da behin-behine-ko onarpeneren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Hori dela eta, jakinarazten da hasierako onarpenera behin betiko bihurtu dela, eta ja-raian behin betiko onartutako Ordenantza horri erantsitako aldaketan testua argitara-tzen da:

BARIK TXARTELA ETA BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN GARRAIO-TITULU
KOMUNAK ARAUPETZEN DITUEN ORDENANTZA

2. artikulua. — Arautzearen eremu subjektiboa

Ordenantza hau Barik txartelaren eta BGPren bidaia-tituluen erabiltzaile guztiek bete beharko dute, baita beste lurralde historiko batzuetako txartel gonbidatuak dituzten era-biltzaileek ere, horiek eragingarriak badira

Aurrekoa gorabehera, salbuetsita egongo dira CIE 10/OMS-2001ren arabera 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 mugaketa-kodeak eta eurek eskatuta aintzatetsitako mende-tasun-mailak dituzten % 45eko edo gehiagoko desgaitasun intelektuala duten pertsonen laguntzeko pertsonak.

Eskaera Bizkaiko Garraio Publikoko Bezeroen Arretarako Bulego Integraletan aur-keztu beharko da. Interesdunek dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko eskubidea dutela ezar-tzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoa betetzearen ondoretarako, Bizkaiko Ga-rraio Partzuergoak, interesdunak aurka egin ezean, datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez elektronikoki kon-sultatu edo eskatu ahal izango ditu eskubidea kudeatzeko beharrezkoak diren datuak eta dokumentuak, bereziki 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 mugaketa-kodeak eta ain-tzatetsitako mendetasun-mailak dituzten % 45eko edo gehiagoko desgaitasun-mailari dagokion baldintza betetzeari buruzkoak.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 22an. — Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García